

ZORROTZ



MORROTZ

☞ Aldizkari hau Zorrotzako Euskal Txokoak, Bilboko Udalaren dirulaguntzaz, argitaratzen du.

☞ Hala ere ZORROTZ MORROTZ aldizkari irekia da eta Euskal Txokoa ez dator nahitaz bat hemen azaltzen diren eritziekin.

☞ ZORROTZ MORROTZ-en artikuluez inon baliatzean aipa bedi, mesedez, iturria.

He aquí el primer número de ZORROTZ MORROTZ, revista para el barrio de Zorrotza que, de una manera próxima y amena, pretende ser un puente entre los euskaldunes y todos aquellos interesados en aprender o mejorar su euskera.



ZORROTZAKO
EUSKAL TXOKOA

ZORROTZAKO KULTUR ALDIZKARIA

1. ZKIA/1995.eko IRAILA. DOHAKO ALEA



Zorrotzako I. Argazki Lehiaketan hirugarren saria. Egilea: Roberto Rodríguez.

Zorrotza jaietan!

Udazkena ate-joka, Zorrotzako jaiak datozen seinale, dio esatera zaharrak. Eta ez badio ere, guri bost inporta: Iruña, Gasteiz eta Donostiakoen ondoren -Bilboko auzorik polittinak, hori bai!- Zorrotzako jaien txanda dena edonork daki eta. Uda mina pasata, datorren lan-urteari gogoz eta berpizturik ekin baino lehen, libertitzeko aukera galanta dugu zorrotzatarrok. Bejondigula! Hortaz badakizue denok: ondo pasa, zintzoak izan eta ez arnegatu Jai Batzordeko neska-mutilen kontra.

GORA MIKEL DEUNA!, GORA ZORROTZA EUSKALDUNA!

AGURRA

Aupa:

Eskuartean duzu, adiskide, jaioberria den ZORROTZ MORROTZ noizbehinkaria. Dagoeneko konturatuko zinenez, euskara hutsez idatzita dago, baina gure hizkuntzari buruzkoak ezezik, auzoari dohazkion hainbat gai eta jakingarri ere besarkatuko ditu. Hauxe baita gure lehenengo asmoa: Zorrotzaren inguruan sortzen diren berri eta ekimenak euskaraz eman eta auzoko guztiei heleraztea.

Baliteke, irakurle, orrialde txooi begiratu eta mami handirik ez somatzea. Eta zuzen zaude. Izan ere zenbaki honek garrantzitsuena falta du, zure partehartzea alegia. Hona bada gure bigarren asmoa: zu, gu eta Zorrotzako euskaldun guztien arteko zubia izatea.

Beraz zure iritzi eta kolaborazioaren zain gaudela, hurrengo zenbakira arte!

ZORROTZ MORROTZ noizbehinkaria zure etxean dohain jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Zorrotzako Euskal Txokoa

Zorrotzako Auzo Etxea

Fray Juan 28

48013 BILBO

Izen-deiturak.....

Helbidea.....


Herria.....Kodea.....

Telefonoa.....

Zorrotzako III. Ipuin Lehiaketa

Aurtengo Ipuin Lehiaketaren partehartze handiak sendotu egiten du 1993. urteaz geroztik burutzen dugun sariketa hau. Hirugarren edizio honetan 80 umek hartu dute parte, horien artean neskak gailendu direlarik (Ik. eskuineko grafikak). Haurren ikas ereduari begiratu, D eredukoak nagusi direla nabarmendu behar da, B-koek ere ipuin kontalari trebeak direla ondo asko erakutsi arren. Horra adibidez **Ana Belén Pereiro** neskatoa, aurtengo sariduna eta B ereduko ikaslea (Ik. behean bere ipuina).

Sari guztiak ekainean eta Ferial parkean propio antolatutako jaialdiaren barruan banatu ziren. Ipuin saridun guztiak -ahal bada- ZORROTZ MORROTZ gure aldizkari honetan argitaratuko dira, denak banan-banan irakur eta goza ditza-zuen. Ah! eta ez ahaztu ipuinok 7tik 14 urtera bitarteko umeek idatzi dituztela. Beraz zeurok leitu eta atera kontuak!



Nire bihotzean beti eramango zaitut

Ana Belén Pereiro (12 urte)

Oraindik primeran gogoratzen ditut zuri bidalitako gutun berezi haren hitz guztiak. Horrela zioten:

1995eko apirilaren 11

Agurne maitea:

Arratsalde curitsu bat zen, eta ni kaletik nindoan, euritakorik gabe. Bapatean tximistak hasi ziren eta nik korrika egin nuen. Nahigabe zurekin oztopatu nintzen. Barkatzeko esan nizun... Horrela ezagutu ginenez: nire bizitzako egun politena izan zen; eta zurekin egon nintzen beste guztiak ere bai, noski. Oso ondo gogoratzen dut Maulera egin genuen bidaia, eta askotan joan ginela tabernara, afaltzera. Oso lasaiak izan ziren parkeetako gure ibilerak, eta oso ondo pasa genuen zure herriko jaietan...

Baina orain guzti hori amaitu egin da; nire bizitzako egun hauek hemen, psikiatriko ilun honetan, pasa behar ditut. Zergatik joan zinen? Zertarako ailegatu zen egun hori? Oso gazte zinen, eta hemen bakarrik utzi ninduzun.

Istoria hau oso tristea da, baina beti dago amaiera polit bat: zurekin joango naiz. Ez dut asko pentsatu behar. Zu gabe ez dago zereginik. Hurrengo astean nire burua hilko dut eta zurekin egongo naiz zeruetan betirako.

Larunbatera arte (gauetz).

JON ANDER

Aste batez egon nitzen nire gauzak batzen eta prestatzen, batez ere, buruhiltzerako. Eguna heldu zen. Afaldu ondoren, nire logela txikira joan eta garaiz oheratu nintzen. Guztiak lo egiten zeudenean, ohetik poliki-poliki jaiki eta, zaratarik egin gabe, kakotegitik arropa kendu nuen. Izararekin soka antzeko bat egin nuen gorapiloekin eta nire lepoaren inguruan ipini nuenean, pentsatu nuen:

-Laster zurekin egongo naiz, Agurne maitea.

Bapatean nire atzetik argitasun bat ikusi nuen eta, burua bueltatzerakoan, zu han zinen:

-Jon Ander! -esan zenuen ikaraturik.

Zure arropa tunika zuri bat zen. Zure ile horiskak arinki mugitzen ziren, oinutsik zeunden eta zure gorputz osoak argitasuna askatzen zuen.

-Agurne! -esan nuen.

Oraindik ez nuen sinesten.

-Ez hil zure burua, mesedez -eskatu zenidan.

-Baina nik zurekin egon nahi dut.

-Hori ezinezkoa da. Hemen, mundu honetan, gera zaitez, mesedez. Benetan eskatzen dizut. Nigatik ez du merezi hori egiteak. Bizitza osoa duzu aurretik nitaz ahazteko...

Baina nik maite zaitut! -oihu egin nuen pixkat.

-Ssshhh! Benetan maite banauzu, ez hil zeure burua.

Eta pixkanaka-pixkanaka desagertzen joan zinen.

-Agurnee!!! -oihu egin nuen ozen.

Erizainak eta medikuak etorri ziren. Arineketan erlaxagarri bat eman zidaten, eta oheratu ninduten. Negar egiten lokartu nintzen. Biharamunean buruko minarekin esnatu nintzen. Hasi-eran ez nintzen ezertaz gogoratzen, erlaxagarriagatik, baina gero:

-Agurne; benetan maite zaitut, horregatik eskatzen didazuna egingo dut. Nire bizitza hobetzen saiatuko naiz, lehenaldia pixkat ahazten -proposatu nuen gozoz eta indarrez.

Denboraldi bat pasa egin zen eta nire hobekuntza ikusita handik ateratzen utzi ninduten.


Eta orain, hamar urte eta gero, hemen nago hondartzan; hil zinen lekuan zurekin hitz egiten.

Bai hobetu naizela, noski. Horregatik ez nago psikiatrikoan. Baina zuk eskatu zenidana ezinezkoa da, benetan. Zu nire bizitzaren parte handi bat zara eta hori ezin dut ahaztu. Agurne maitea.

Nire bihotzean beti eramango zaitut.

Aurten bai!

Aurten bai: Zorrotza Futbol Taldea hirugarren mailara igo da. Ez da batere xamurra izan, baina azkenean guztion ahaleginei esker lortu du!



Maiatzaren 28an La Base Futbol Zelaian bildutakoek ez dute erraz ahaztuko hango festa giroa. Arrazoia?, Padurari 1-0 irabazteaz batera, Zorrotzak hirugarren mailan, 12 urte pasa eta gero, berriz jokatzeko txartela eskuratu zuela.

Zorrotza Futbol Talde historikoa hirugarren mailan ikustea izan da klubeko agintari eta auzoko guztien betiko desio eta ametsa. Horixe baita 1913. urtean sortu zenetik dagokion kategoria. Eta ez dago txarto, 13.000 biztanleko auzoa ordezkatu eta ia mila bazkide dituela kontuan hartzen badugu.

HISTORIA GORABEHERATSUA

Historian zehar denetarik bizi behar izan dute jarraitzaile, bazkide eta klubeko agintariek. Gaurko poza goza dezagun, bada, momentu txarrak ere tokatu zaizkigu eta. Une gazi zein gozoetan, zaletuei behin baino gehiagotan leporatu diete "hotzegiak" zirela jokalariekin, ez zutela taldea behar bezala bultzatzen.

Hala ere kinka larrietan ederki asko frogatu dute jarraitzaileek beren fidelotasuna: gogoratu, bestela, duela lau urte

taldea kategoriatik jaisteko zorian egon zenekoa. Azken ihardunaldi hartan Zorrotzak bere mailari eutsi zion Garellano Futbol Zelaian Iturrigorriren kontra 0-2 irabazi ondoren. Zaletuen orduko bultzada erabakiorra izan zen.

VICTOR LLOPISEN GARRANTZIA

Ordu hartan Iturrigorriko eserlekuan Zorrotza Talderako inoizko gizonik garrantzitsuenetariko bat jezarrita zegoen: Victor Llopis. Duela lau urte berak erdietsi zuen Zorrotza ez jaistea, eta bera izan da orain ere taldea hirugarren mailara igo duena. Aurten aurreko denboraldian hasitako lana amaitu du. Ihazkoan Zorrotza Zamudioaren aurka, hirugarren mailara igoetzeko, ia azken ihardunaldira arte borrokatu zedin lortu zuen Llopisek.

Azkenean ezinezkoa izan zen eta, zazpi partidua bakarrik galdu arren, bigarren postuarekin konformatu behar izan zuten berde-beltzek. Hori bai, Gipuzkoako Hondarribia eta Arabako Mercedes taldeekin batera ezer gutxirako balio zuen promozioa jokatu ondoren. Dezepzio hutsa!

ONGI MEREZITAKO SARIA

Aurten, ordea, denboraldi ezinhobe burutu du La Base-ko taldeak: 58 puntu, 5 partidua galdu -denak etxetik kanpo, gainera- eta 19 gol bakarrik jaso ditu. Erregularitasuna da Victor Llopisek taldeari eman dion gauzarik preziatuen. Egia da batzuetan ez dugula futbol onik ikusi, baina ez al du merezi izan?

Irailean hasiko den denboraldirako helburu bakarra, zalantzarik gabe, asko kostata lortu dugun hirugarren mailari eustea izango da. Honezkerok klubeko agintariek lehenengo neurria hartu dute, ekonomikoa hain zuzen: bazkide-xtartelaren igoera.

Bukatzeko zera gogorarazi nahi duzuet, Zorrotza Taldea hurbiletik jarraitu nahi ezkerok, Zaldiko Maldiko Irratia-105.8FM-astelehenero etailuntze aldera sintonizatzea besterik ez duzuela.

Gora Zorrotza Futbol Taldea!

M.Y.M



Zorrotza Futbol Taldea. 94 - 95 ihardunaldia.

ADI EGON GAZTE!

Esan bezala guztion partehartzea behar badugu ere, gazteena bereziki nahi genuke. Gure asmoa gazte leku pat paratzea da. Bertan zure idatziak, argazkiak, marrazkiak eta nahi guztia agertuko da. Gainera aldizkari honekin batera kaleratuko dugu, beraz ez ahaztu eta arin ibili! Lanak, zure izena edo izengoitiarekin, helbide honetara bidali:

**GAZTE LEKU
ZORROTZAKO EUSKAL
TXOKOA
ZORROTZAKO AUZO ETXEA
FRAY JUAN 28
48013 BILBAO**

NI BA NAIZ HEMENGOA

Txanpaina Korrika

Hauteskunde gaua. Alderdien egoitzetan mikrofonoak politikarien lehen inpresioak jaso nahiean. Inkestek aurreratu emaitzak orduz ordu baieztatuz baitoaz, batzuen aurpegietan irri-marra gero eta nabariagoa da. Bat-batean zuzeneko koneksioa sartu eta Euskadi Irratiko esatariak gaueko irabazlea agurtu du: "Gabon, Carlos Iturgaiz: pozarren egongo zara, ezta?"; eta besteak: "Bai, hemen txanpaina korrika egiten ari da...". Kazetariak ere nekez eutsi dio farregurari. Hor uzten ditut...

PPko burukidea-Zorrotzan bere hitza jateagatik ongi ezaguna- paradigma grotesko bihurtu da gure herrian. Laugarren mailara ozta-ozta iritsi den edozein astokirten euskara eta hiztegiaren kontra ostikoka hasteko eskubidearen jabe da. Baita telebista kamera eta guzti, guztiok lekuko izateko!

Zoritxarrez hitz-jalea ez dugu kasu bakarra. Hara gure lehendakari prestua, Txepetxen hitzekin esateko, supazter txokoan amonarekin bezala, telebistaz ere holaxe mintzo zaiguna. Berdin dio solas-gaiak: dela IPC edo langabeziaren gorakada-indizea, direla industri birmoldaketaren ondorio ekonomikoak... beti hizkera berdina darabil eta. Egingo nuke ezetz dakizkiela, euskaraz, 500 hitz baino gehiago!

Hauteskunde garaian ere IUko Madrazo elkarrizketatzen zuten Madrileko telebista batean. Bukaera aldera-españolak hain sentiberak beti estatuko errealitate eleaniztunarekin-galdetu zioten: "¿cómo se dice buena suerte en vasco?", "pues aquí decimos Zorionak" erantzun besteak, eta lokutoreak gizabidetsu "¡pues que tenga usted mucha chorioná, hombre!".

Bakezale-ohiari Ortuondori bezala gertatu zitzaion: gizajoak hitzak nahastu zituen. Alkateak ere Bilboko irrati batean solasaldi bat amaitzeko "Kaixo" esanez agurtu baitzituen bilbotar guztiok. Eta zer esan Gabilondo - Iñaki- horretaz?: San Ferminetako txupinazoa zuzenean emanda "Gora Fermin Deuna" oihua espainar guztiei era honetara helerazi zien: "... y esto que acaban de oír ustedes significa, más o menos, que viva el día de San Fermín. ¡Felicidades a todos los pamplonicas!". Horrek ere, nonbait, kanpai-hotsak entzun zituen...

Hobe izango dugu, bada, Natxo de Feliperekin batera guk ere kantatzea: "Zergatik zara zu mitozale, baldresa, aldrebesa? Mitoa beti da ametsaren ametsa, ezereza... Dena da handiputza. Zarata asko, egintza gutxi, ametsa ta ametsa".

Irulai



Hiltegi zaharreko lanen berri ematen duen kartel "informatiboa".

ZE FIROLDEGI ETA ZE ANDONI MANDONI!

Latza izango da irakurlearentzat goiko esaldi hau ulertzea. Hala ere ZORROTZ MORROTZ noizbehinkariak, Zorrotzako euskaldunon komunikabidea izanez, edozein gauza ulertzeko prestatu behar ditu bere irakurleak, kale eta barne errotulazio ofizialak horixe eskatuko baitigu gero eta indar handiagoz. Zin max, i esperando buextraz kartaz sovrey detayes kotidianox komo exte, ¡afur! (Soluzioa: Ze firoldegi eta ze andoni mandoni!)

ZORROTZAKO EUSKAL AGENDA

Zutabe honen bidez datozen lau hilabeteetan Euskal Txokoak, edo auzoko beste taldeek, euskaraz antolatuko dituzten ekitaldi, ikastaro eta abarren berri eman nahi dizuegu.

IRAILEAN

Ikastaroen matrikulazioa:

- Euskal Musika Tresnak (alboka, panderoa, dultzaina...)
- Bertsolaritza (0 mailatik)
- Sukaldaritza (bero-bero)
- Margoa (grafitien teknika eta guzti)
- Euskara ikastaroak Zorrotzako

AEK-n

Zorrotzako eskoletan, estr-eskolarak ere euskaraz:

- Musika (jolastuz, solfeorik gabe)
- Antzerkia (nola jolastu gure gorputzarekin)

ZORROTZAKO JAIETAN

- Bertso afaria
- Ustegabeko kontzertua
- II. Argazki Lehiaketa
- I. Margo lehiaketa (txiki-txuentzat)

URRIAN

- Nafarroa oinez (denok Tuterara)

ADI EGON, ZORROTZ MORROTZ ALDIZKARIAREN HURRENGO ZENBAKIETAN JAKINGARRI UGARI DATOZ ETA!

DATUAK: Zorrotzako biztanlegoa, langabezi tasa, hauteskundearen urtez urteko emaitzak, zorrotzatarren ikasketa maila, euskararen estatistikak, etorkizunerako joerak etab... **ERAIKUNTZA BERRIAK:** babes ofizialeko etxebizitzak, Kadaguako korredorea, hiltegi zaharraren oruberako egitasmoak, Zorrotza Zaharraren (Barinaga, Landa) desagerpena. **KIROLA:** Zorrotza Futbol Taldea, Zorrotzako Txirrindulari Taldeak. **BERRIAK:** Jaiak edota ospakizunak, eleiza ebanjelikoaren fenomenoak etab... **KULTUR EKITALDIAK:** Zorrotzako Euskal Txokoaren eta beste talde guztien inguruko berri zuzena. Guzti hau, eta askozaz gehiago, zure etxean dohainik jaso nahi baduzu, ez egon dudamudatan: bete ezazu berehala lehenengo orrian dagoen fitxatxoa, moztu eta guri igorri lehenbailehen. Gaurtik aurrera izango duzu zer irakurri zure auzoaren inguruan. Eta gainera euskaraz!

ZORROTZAKO
EUSKAL
TXOKOAK
BILBOKO
UDALAREN
DIRULAGUNTZA
JASOTZEN DU.

